

Xanta Sousa Santos, txingak eramalea

«Askorentzat txingak bi burdin puska baino ez dira, niretzat oso garrantzitsuak dira»

Brasilgo lesakarra eta Lesakako brasildarra. Egoskor heldu die mota guztietako kirolei, futbolari, sokatirari, aizkorari, eta bereziki txingei. Burugogorkeria berarekin aritu da ikasten gaztelania, euskara eta frantsesa.



Reyes Ilintxeta

@Reyesilintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zer dela eta Xanta?

María Do Amparo da nire izena. Brasilen beti "Santa" deitzen zidaten, han ohikoa delako ezizenak erabiltzea. Hemen, al-diz, esaten zidaten ni "santa" ez nintzela eta Xantarekin gelditu nintzen.

Zer oroitzapen dituzu txikitako garaitik?

Hamar anai-arreba izan ginen. Orain zortzi gelditzen gara eta ama izan da beti niretzat garrantzitsuena. Gu hango baserri batean bizi ginen eta gauza askotan, hemengo baserriekin alderatuta, oso antzekoa zen.

Txingak, adibidez, niretzat oso bereziak dira, haurra nintzeneko lanak go-gora ekartzen dizkidatelako. Ura eta esnea eramaten genuen pertzetan. Esnea baserri batetik bestera, agian Lesakatik Berarainoko tarte luzean. Eta ura. Aspaldi hartan etxeetan urik ez zegoen eta erreka joan behar izaten genuen bila. Txikitik ez zitzaidan batere gustatzen pisua eramatea, eta orain begira! Bada bizitzako kointzidentzia moduko bat.

Hango eta hemengo baserri giroa, beraz, antzekoa?

Bai, baina hemen gehiago probesten da lurra. Horretaz ohartu naiz, bai. Han baserrietan bizi direnek edo aurreko belau-netako pertsonen, nire gurasoen adibi-

dez, bai. Baina jende gazteak edo betiko baserrietan bizi ez direnek ez dute lurra lantzen hemen bezala. Hemen etxe ondoan lur puskarik baduzu, baratze txiki bat jartzeko sikiera probesten duzu. Han Brasilen lur pila dugu, doan, eta jendeak ez dio atarramenturik ateratzen.

Animaliak ere bazenituen?

Bai: behiak, txerriak... denetik. Nire bi anaiek eta gurasoen oraindik jarraitzen dute baserrian. Egia esan mundu horrek asko erakartzen nau.

Noiz etorri zinen Lesakara?

Orain dela 18 urte, 24 nituela. Adin horretan oso ausarta zara eta dena daki-zula iruditzen zaizu. Baina ni ez naiz batere damutzen, dena oso ongi atera zaidalako. Hasieran une txarrak izan nituen, ez jendearengatik edo tokiarengatik, baizik eta familia falta sumatzen nuelako, gurasoak bereziki. Eta lagunak. Hasieran ume bat bezalakoa zara eta hutsetik hasi behar duzu dena ikasten: hitz egiten, zeure kabuz ibiltzen... Nire suertea izan da gure amak betidanik erakutsi izan digula geure kasara moldatzen.

Ama zu bezain saiatua da?

Bai. Oso borrokalaria. Hamar ume izan

zituena bata besteari jarraian, baserrian, eta aurrera atera zuen familia osoa. Fenomeno bat da. Gogoratzen dut goizaldeko laueta altxatzen zela guretzako eskolara joateko arropa, janaria... dena prest uzteko, besteen baserrietara lanera joan baino lehen. Aitak ere lan egiten zuen asko, baina amarentzat zen kanpokoaz gain, etxeko lan guztia. Han gizonak iritsi eta janaria behar zuten prest, eta platerian jarrita. Seme-alabok ez gara inoiz izanen ama bezalakoa. Bere mailara ez gara inoiz iritsiko.

Gurasoak ikusten dituzu?

Urtero joaten naiz eta gehiagotan joan nahiko nukeen arren, kontent nago jende guztiak ezin duelako halakorik egin. Oso garestia da bidaia eta gainera denbora behar duzu. Urtarrilean joaten naiz, hilabete osorako, eta probesten dut denbora guztia haiekin egoteko. Suertea dut nire nagusiak opor guztiak jarraian hartzeko aukera ematen didalako. Izugarri eskertzen diot. Hemen nagoenean hara joan nahi dut eta han nagoelarik beti ari naiz pentsatzen zer moduz joanen diren gauzak hemen.

Nola izan zen hona etortzea?

Senarra han ezagutu nuen. Lesakarra da eta hara joaten zen oporretara. Elkarre-

A woman with long dark hair, wearing a light blue long-sleeved top and black pants, is sitting on stone steps in a town street. She is smiling and looking towards the camera. The background shows a stone building with arched windows and a paved street.

Xanta Sousa Santos

1972, Valença (Bahía, Brasil)

Duela 18 urte Lesakara ezkondu eta berehala sartu zen Baztan-Bidasoa Herri Kirol Taldean. Gaur egun Euskal Herriko eta Nafarroako txinga eramatean txapelduna da. Esku bakoitzean 25 kiloko zamarekin 28 metroko 48 plaza, hiru laurden eta 2,35 metroan dago bere marka, Euskal Herriko onena.

kin ibiltzen hasi eta handik denbora batera esan zidan ekarri nahi ninduela hemengoa ezagutzeko. Ezetz esan nion. Etxean ere denek esaten zidaten ez joateko. Ez fidatzeko. Izugarritzko buruko minak ematen zizkidaten batzuek eta besteek. Handik urtebetera ezkontzea proposatu zidan eta onartu nuen, ikusten nuelako hori jada egoera desberdina zela. Eta etorri ginen. Lehenbiziko sei hilabeteak oso gogorak izan ziren. Zailena, hizkuntza jakin gabe, jendearekin komunikatzea izan zen. Senarrak portugesez daki eta berak laguntzen zidan, baina bera ez zegoenean oso gaizki pasatzen nuen.

Ni etorri nintzen garaian oraindik ez zegoen kanpotarrentzako gaztelania ikasteko eskolarik eta kasualitatez Iruñean, Caritasen, aurkitu nuen aukera. Astean bitan joaten nintzen klasera, eta izugarritzko hotza pasatzen nuen autobus geltoki zahar hartan, bi orduz autobusaren zain egon behar izaten nuelako. Sei hilabetez aritu nintzen klaseetan eta poliki-poliki hasi nintzen konturatzen gero eta gauza gehiago ulertzen nuela. Niretzat esnatzea bezalakoa izan zen. Egun batean konturatzen zara telebista piztu eta ulertzen duzula, bolumena dena emanda jarri gabe. Telebista, irratia, bihotzeko aldizkariak, liburuak... ai ama! Pio Barojaren zenbat liburu irakurri dudan nik!

Gaztelaniaz ongi eta zuzen hitz egin nahi dut, baina nire doinua galdu gabe, nire identitate-marka modukoa baita. Ni neu izan nahi dut. Nire nortasuna mantendu nahi dut eta besteena erresetatu.

Kirolak lagundu zizun Lesakan zure tokia bilatzen?

Bai, zalantzarik gabe. Familiatik urrun egonda, hona etorri nintzen huts hori beteko zuen zerbait behar nuen. Abesbatzan sartu nintzen, adibidez, baina ez ninduen asetzen. Hala ere, zortea



HERRI KIROL FEDERAZIOA

"Txingak niretzat oso bereziak dira, haurra nintzeneko lanak gogora ekartzen dizkidatelako. Ura eta esnea eramaten genuen pertzetan".

izan nuen koruko neska batek sokatira taldea egin behar zutela eta ea probatu nahi nuen galdetu zidalako. Haren bidez hasi nintzen herri kirolean. Nik ez nekien zer zen hori eta gainera garai hartan ez zegoen egun bezain zabaldia. Hala egin nuen eta izugarri gustatu zitzaidan. Hori zela nik bilatzen nuena sentitu nuen berehala. Han Brasilen kirol asko egiten nuen eta talde honetan oso giro sano eta polita aurkitu nuen. Taldekoen artean ez dago lehiarik. Denek denei laguntzen diete eta familiak eta lagunak ere hor egoten dira beti animoak ematen. Niretzat familia handi bat da. Ni oso behatzailea naiz eta hori da lehen unetik ikusi dudana.

Zer erakutsi dizu kirolak?

Asko. Beti nahi duzu zeure burua gainditu, zure marka berriak ezarri. Izugarri gustatzen zait. Horrela hasi nintzen sokatiran, oso gustura, baina lastima ezin izan dugula jarraitu, jende faltarengatik. Batek huts egiten badu eta ordezkorik ez badago, akabo taldea. Haurrengatik edo lan arrazoiengatik askok utzi behar

izan dute. Lehiaketak as-teburuetan izaten dira beti eta batzuetan egun gehiago luzatzen dira eta batzuentzat hori ez da lanarekin bateragarria.

Horrela nenbilela sortu zitzaidan txinga eramatean parte hartzeko aukera. Neska bat behar zuten eta han joan nintzen ni. Lehenengo aldian ez nintzen batere gustura gelditu, baina kirol honek bereganatu egiten zaitu.

Eta aizkorarekin hasi zara?

Bai. Zailagoa da, baina hori da etorkizunerako dudan erronka. Oso burugorria naiz eta lortu behar dut! (kar kar kar). Ez da indarra soilik, teknika eta erreminta ongi erabiltzea oso garrantzitsua da.

Eta arpanarekin ere ongi moldatzen zara.

Bai, baina ez nau betetzen bereziki. Egin behar bada, egiten dut, baina

nire benetako amodioa txingekin aritzea da. Ez daude baloratuta. Jende askorentzat bi burdin puska baino ez dira, baina niretzat oso garrantzitsuak dira. Hau da benetan gustatzen zaidana.

Zein da zure marka?

40 kilo esku bakoitzean, baina txapelketetan 25 kilo eramaten dugu esku bakoitzean.

Eta hori nola lortzen da?

Teknika oso garrantzitsua da: jakin behar duzu nola heldu txingari. Hasieran hatzek mina ematen dizute. Gero lokartuta gelditzen zaizkizu eta ez dituzu sentitzen. Orduan pentsatzen duzu, ea zenbat kilo eramateko gauza naizen. Zeure buruarekin borrokatzen duzu. Ez dut inor baino gehiago izan nahi, neure burua, neure muga, gainditu nahi dut beti. Ni neu izan nahi dut.

Entrenamenduak Oronozen?

Bai, Patxi Larretxearekin. Oso polita da, baina gogorra ere bai. Gainera, ez pentsa lanetik atera, hara joan eta bes-



“Kuadrillarekin, lagunekin, dena beti euskaraz egiten zen eta niri ez zitzaidan batere gustatzen itzultzailea eduki behar izatea. Horregatik sartu nintzen euskaltegian”

terik gabe entrenatzen hasiko zarela, ez. Lehenbizi enborrak prestatu behar dira aizkorarako, gauzak garbitu... Patxi mendian aritzen da lanean goiz osoan, bostetatik edo lehenagotik, eta arratsaldean etortzen da entrenamendu saioak zuzentzera. Gehien miresten dudana gizon honek duen energia ikaragarria da. Goizaldeko laueta altxatu, egun osoan jo eta ke lanean, eta arratsaldean oraindik duen bizitasuna izugarria da. Dena prestatu ondoren, beroketa egin eta entrenamendua hasten da. Astean bi edo hiru aldiz biltzen gara. Gehiagotan joan nahi baduzu zure esku dago, Patxi eta Donato anaia, hor egoten baitira egu-nero.

Beste kiroliek egiten al duzu?

Asko ibiltzen naiz mendian, bizikletan... Korrika egitea ez dut gustuko urduri jartzen naizelako. Lehen futboleko aritzen nintzen, baina inork ez du nirekin jolastu nahi nahiko basatia naizelako eta arerioen hankek asko sufritzen dutelako nire erruz. Brasilen asko jolasten nuen.

Euskara ikasi duzu.

Ari naiz. Kiroletan hasi eta gero heldu zen euskararena. Kuadrillarekin, lagunekin, dena beti euskaraz egiten zen eta niri ez zitzaidan batere gustatzen itzultzailea eduki behar izatea. Gauzak nire kabuz ulertzea gustatzen zait eta horregatik sartu nintzen euskaltegian. Oso jende atsegina ezagutu nuen eta haiekin sagardotegietara joaten gara, ateraldiak egiten ditugu. Interesgarriena da egoera bakoitzetik onena ateratzea.

Eta ondoren frantsesa.

Hala da. Ibardinen hasi nintzen lanean lan finko bat behar nuelako Brasilerako bidaiak egiteko. Esan zidaten Ibardinen lan egitea oso gogorra zela eta gainera frantsesa jakin behar nuela. Eta esan nuen: “Oso ongi, beste erronka bat gehiago”. Orduan hasi nintzen klase partikularrekin eta gero Irungo Hizkuntza Eskolan. Hamabost urte daramatzat jada Ibardinen.

Zer egiten duzu han?

Jendaurrean egiten dut lan dendan,

arropa, oroigarriak... denetik saltzen. Ibardin oso leku ederra da. Hori da Nafarroa duen gauza izugarria ona: paisaiak, ikuspegi ederrak. Errepidea oso bihurria da, baina gu ohituta gaude. Alde positiboa begiratu behar da beti. Ni pribilegiatua sentitzen naiz halako toki ederrean lan egiteagatik. Ordu bete izaten dut bazkaltzeko eta eguraldi ona dagoenean gustura egoten naiz paisaiei so eginez.

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

Aisialdian zer egiten duzu, kirolaz gain?

Dantza egin lagunekin, afaltzera joan. Herri Kirol taldearekin ere ateraldi politak eta otordu bikainak egiten ditugu. Ez dakit zergatik, baina hemen dena amaitzen da mahai baten inguruan.

Haurrik ez duzu?

Ez. Orain jada ez du zentzu handirik. Garai batean hango bi ume, Mateo eta Jessica, adoptatu nahi izan nituen hona ekartzeko, baina traba pila jarri eta gai-

nera familiak diru asko eskatzen zidan. Pena hori daukat, baina bizitzan ezin da dena izan. Joaten naizenean haiekin egoten naiz.

Alde handia al dago Brasil eta Euskal Herriko jendearen izaeren artean?

Bi mundu desberdin dira eta ezin dira konparatu. Han klima oso bestelakoa da. Tropikala da eta beroa egiten du beti. Horrek markatzen ditu asko jendearen izaera eta ohiturak. Hemen ere uda partean kaleak, terrazak, jendez beteta egoten dira, festa pila izaten da. Hotz egiten duenean, aldiz, dena aldatzen da. Hori da hemengoa eta ezin da aldatu. Zer tristeza litzatekeen natura bera aldatu ahal izatea. Espero dut inoiz ez gertatzea.

Brasilen oso irekiak gara, izugarri gustatzen zaigu musika eta egunean bizi gara. Etxera joan baino lehen beti duzu aukera lagunekin egoteko eta trago bat hartzeko, baina hango klimak horretarako aukera ematen dizulako. Han goizko bostetan erabat argi dago. Zazpietatik aurrera jende pila aritzen da kirola egiten. Brasil kirolaren herrialdea da.

Sakratua da eta sasoiaren egotea oso garrantzitsua da jendearentzat.

Estetika edo osasunarengatik?

Estetikagatik, bereziki. Baina toki guztietan bezala denetik dago, ez soilik gorputz lirainak. Lodiak ere badira, eta gero eta gehiago. Kirol pila egiten da, gustuko dugulako. Irekiak ere bagara, baina komatxoaren artean.

Zer esan nahi du horrek?

Turistari irudituko zaio denak oso alaiak direla, baina pertsonak nolakoak diren ezagutzeko haiekin behar da bizi. Ez nuke esanen hemengo jendea hotza eta itxia denik. Hemengo izaera da, besterik ez. Kanpotik datorren pertsonaren jokamoldearen arabera da hori ere. Zu ixten bazara, gaizki zoaz. Saiatu behar duzu jendearekin harremanetan jartzen. Horrek ez du esan nahi, noski, inori zapatak miazkatu behar dizkiozunik, ezta gutxiago ere. Zeu izan behar duzu baina besteenera irekitzen saiatuta. Nik errespetatzen zaitut zaren bezalakoa eta zuk ni errespetatu. Horiek dira jokoaren arauak. Jarrera kontua da. ■

Ondo zaindua

“Lesakako lehen beltza ni izan naiz. Kanpotarrak baziren baina Estatukoak gehienak. Ezin naiz kexatu, jendeak beti oso ongi tratatu nauelako. Oso aldarte gogorra dut, burugogorra naiz eta horregatik ezin naiz kexatu, maitasun ikaragarriarekin zaindu nautelako”

LANAK AURKEZTEKO:
cafelhuyarsariak@elhuyar.com

INFORMAZIOA ETA OINARRIAK:
cafelhuyarsariak.elhuyar.eus

ANTOLATZALEAK
CAF elhuyar

LAGUNTZALEA

Jari txertoa
kultura zientifikoaren alde

CAF ELHUYAR
SARIAK 2015